



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## ZUIAKO UDALAREN KONTRATAZIOARI BURUZKO TXOSTENA

### 190. zenbakiko AVC proiektua -PROM- (2016)

#### Aurkibidea:

#### TOCOsoko bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza andrea, kontseilukidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kontseilukidea

Idazkaria: Alfonso Gómez Fernández jauna

Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2016ko maiatzaren 24an egindako bileran, goian adierazitako kideak bertaratuta, txosten hau ematea erabaki du, Zuiako Udalak *Palatuko* udal-kiroldegiko eta *Jai Alai* udal-pilotalekuko hainbat zerbitzu kontratatzeko egin duen lizitazioa dela eta.

### I.- Txostenaren xedea

1. Lehiaren Euskal Agintaritzak, Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren bitartez, ustezko irregulartasun batzuen berri jakin zuen, Zuiako Udalak *Palatuko* udal-kiroldegiko eta *Jai Alai* udal-pilotalekuko instalazioak mantentzeko, kudeatzeko eta sarrerak kontrolatzeko zerbitzuetarako eta kirol-ikastaroak emateko egindako lizitazioa zela eta.

2. Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legeak erakunde honi esleitzen dio administrazio publikoei merkatuetako lehia mantendu edo berriz ezartzeko proposamenak helarazteko eginkizuna<sup>1</sup>. Erakunde honen zeregina da Euskal Autonomia Erkidegoko merkatuetan egiazko lehia sustatzea, ekintza ez-zehatzaileen bidez.

Lehiaren Euskal Agintaritzak beharrezkotzat jo du aipatutako zerbitzuaren kontratazioa aztertzea, geroko kontratazioak hobetu ahal izateko, botere adjudikatzaillearekin elkarlanean.

---

<sup>1</sup> Ikus Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 3.3.e) artikulua (2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk.).



Lehiaren Babesari buruzko Legeak Lehiaren Euskal Agintaritzari ahalmena ematen dio legea baino maila apalagoko arau juridikoak eta lehiari arazoak sortzen dituzten egintza administratiboak aurkaratzeko<sup>2</sup>. Erakunde honek, halere, egokiago jotzen du aurkaratzeak saihestea eta efizientzia eragitea administrazioekin lankidetzan egindako txostenen bitartez.

## II.- Kontratazio publikoa eta lehia

3. Administrazio publikoa, jakina den bezala, besteak beste, legezkotasunaren printzipioaren pean dago, eta, horrenbestez, lehia babesteari buruzko araudiaren pean<sup>3</sup>.

Nazioko eta nazioarteko txosten batzuk badaude kontratazio publikoan lehiaren printzipioak aplikatzearen garrantzia azpimarratzen dutenak, hura errespetatzeak eta bermatzeak gizarteari dakarzkieten onurengatik, zerbitzuen kalitatea, berrikuntza, lehiakortasuna, enplegu-sorrera, erakundeekiko konfiantza eta baliabide publikoen erabileraren efizientzia hobetzeari dagokionez<sup>4</sup>.

Administrazio publikoaren sailek, agerikoa denez, beren helburu berariazkoak lortzeko betebeharrak daukate, zerbitzu publikoaren prestazio egokia bermatuz, baina, halaber, eginkizun horretan efizientziaz jarduteko betebeharrak daukate. Baliabide publikoak efizientziaz erabiltzea zein lehia bermatzea, biak ala biak aginduzko betebeharrak dira kontratazio publikoko organoentzat.

<sup>2</sup> Estatuko 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Babesari buruzkoa (2007ko uztailaren 4ko BOE, 159. zk.), gero lege hauek aldatua: abenduaren 22ko 39/2010 Legeak (BOE-A-2010-19703); martxoaren 4ko 2/2011 Legeak (BOE-A-2011-4117) eta ekainaren 4ko 3/2013 Legeak (BOE-A-2013-5940). Testu finkatua <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-12946>.

<sup>3</sup> Espainiako Konstituzioaren 103. artikulua: Administrazio publikoak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak, eta eragingarritasun-, hierarkia-, deszentralizazio-, deskontzentrazio- eta koordinazio-printzipioen arabera dihardu, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez.

<sup>4</sup> LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA (CNC), *Kontratazio publikoari eta lehiari buruzko gida*. Madril, 2011. Eskuragarri Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren webgunean: [http://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/Promocion/Guias\\_y\\_recomendaciones/GUIA\\_CONTRATACION\\_v4.pdf](http://www.cnmc.es/Portals/0/Ficheros/Promocion/Guias_y_recomendaciones/GUIA_CONTRATACION_v4.pdf). EUROPEAN COMMISSION. *Green Paper on the modernization of EU public procurement policy - Towards a more efficient European Procurement Market - Synthesis of replies*. Brussels, 2011; ORGANIZATION FOR ECONOMIC CO-OPERATION AND DEVELOPMENT, *Collusion and Corruption in Public Procurement. Policy Roundtables* Paris, 2010; EKONOMIAKO LANKIDETZA ETA GARAPENERAKO ERAKUNDEA, *ELGeren ildoak kontratazio publikoetan eskaintzaileen arteko kolusioa saihesteko*, Erref.: DAF/COMP (2009)1/FINAL. Paris, 2009; MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA, *Espainiako kontratazio publikoaren azterketa. Lehiaren ikuspuntutik hobetzeko aukerak*, Madril, 2015eko otsailaren 5a. PRO/CNMC/001/15; MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA, *Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen gaineko txostena*, 2015eko uztailaren 16a, Madril, IPN/CNMC/010/15.



Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren lehenengo artikulua ezartzen du Administrazio publikoak kontratazioaren funtzionamenduaren oinarri den lehia askea zaindu behar duela, efizientzia sortuz eta kalitatea hobetuz<sup>5</sup>.

Kontratazio publikoari buruzko zuzentarau berriak –jada indarduna, barruko antolamendu juridikorako transposizioa egiteko epea igaro delako– sakonean aztertzen du kontratazio publikoan lehiaren printzipioak aplikatzearen garrantzia<sup>6</sup>. Zuzentarau horretan ezartzen da, adibidez, kontratazioa ez dela antolatu behar “zuzentarau honen aplikazio-eremutik kanpo uzteko asmoarekin, ezta lehia artifizialki murrizteko asmoarekin ere”. Lehia artifizialki murriztuta dagoela pentsatu behar da “kontratazioa eragile ekonomiko jakin batzuei bidegabeki onura edo kaltea eragiteko asmoz sortua denean”.

### III.- Aztertutako lizitazioaren deskribapena

4. Zuiako Udalaren Osoko Bilkurak kontratazio-espedita bat onartu zuen eta 2015eko urriaren 28an argitaratu zen<sup>7</sup>. Hona kontratuaren izena: “*Palatu* kirol instalazioetako eta *Jai-Alai* pilotalekuko mantentzea, kudeaketa eta sarreraren kontrola, eta kirol ikastaroak ematea eta enpleguaren sustapena”.

Honela azaltzen da, hitzez hitz, kontratuaren **xedea**:

<sup>5</sup> Ikus Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua (2011ko azaroaren 16ko BOE, 276. zk.), zehazki, honako hauek aldatu dutena: 17/2012 Legeak, abenduaren 27koak, (BOE-A-2012-15651), 4/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, otsailaren 22koak (BOE-A-2013-2030), 8/2013 Legeak, ekainaren 26koak (BOE-A-2013-6938), 8/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, ekainaren 28koak (BOE-A-2013-7063), 10/2013 Legeak, uztailaren 24koak (BOE-A-2013-8083), 11/2013 Legeak, uztailaren 26koak (BOE-A-2013-8187), 14/2013 Legeak, irailaren 27koak (BOE-A-2013-10074), 20/2013 Legeak, abenduaren 9koak (BOE-A-2013-12888), 25/2013 Legeak, abenduaren 27koak (BOE-A-2013-13722), 1/2014 Legegintzako Errege Dekretuak, urtarrilaren 24koak (BOE-A-2014-747), 13/2014 Legeak, uztailaren 14koak (BOE-A-2014-7468), 2/2015 Legeak, martxoaren 30ekoak (BOE-A-2015-3443), 25/2015 Legeak, uztailaren 28koak (BOE-A-2015-8469), 31/2015 Legeak, irailaren 9koak (BOE-A-2015-9735), 10/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, irailaren 11koak (BOE-A-2015-9801), 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak (BOE-A-2015-10566). Testu finkatua: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2011-17887>.

<sup>6</sup> Ikus Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/24 (EB) Zuzentaraua, 2014ko otsailaren 26koa, kontratazio publikoari buruzko 2004/18 (EE) Zuzentaraua indargabetzen duena. L94/65 zenbakiko EBAO, otsailaren 28koa (zuzenean aplikatu behar da 2016ko apirilaren 18tik, transposizioa egiteko epea igaro delako).

<sup>7</sup> Zerbitzuetarako administrazio-kontratu baten lizitazioa iragarri zen, *Palatuko* kiroldegiko eta *Jai-Alai* pilotalekuko mantentze- eta kudeaketa-zerbitzuak egiteko, sarrerak kontrolatzeko, kirol-jarduerei buruzko ikastaroak emateko eta enplegua sustatzeko. 2015eko urriaren 28ko ALHAO, 126. zk. Hemen dago eskuragarri: [https://www.araba.eus/BOTHA/Boletines/2015/126/2015\\_126\\_04735\\_C.pdf](https://www.araba.eus/BOTHA/Boletines/2015/126/2015_126_04735_C.pdf).



“*Palatu* kirol instalazioetako eta *Jai Alai* pilotalekuko mantentzea, kudeaketa eta sarreraren kontrola, eta kirol ikastaroak ematea eta enpleguaren sustapena”.

Zerbitzu horiek emateko, Udalak zerbitzuetarako administrazio-kontratu baten kontratazio-prozesua abiarazi du. Kontratu hori 26. kategoriakoa da (aisia-, kultura- eta kirol-zerbitzuak), CPV nomenklaturarekin 92600000-7 epigrafekoa (kirol-zerbitzuak).

Gauzatzeko bi urteko epea ezarri da, gehienez beste bi urterako luza daitekeena. Balio zenbatetsia 545.000 euro da (BEZik gabe). Izapidetze arrunta eta adjudikatzeko prozedura irekia erabili dira.

**5.** Adjudikatzeko irizpideek gehienez 80 puntuko balorazioa izan dezakete. Beheko taulan ageri da adjudikatzeko irizpideen banaketa:

Balorazioa, guztira: 80 puntu				
Formulen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideak 50 puntu			Formulen bidez ebaluatu ezin diren irizpideak 30 puntu	
Eskaintza ekonomikoa (40 puntu)		Erroldatutako langileak kontratatzea	Jardueren programa	Hobekuntzak
Mantentzeko, kudeatzeko eta sarrerak kontrolatzeko zerbitzua eta enpleguaren sustapena	Kirol-jarduerei buruzko ikastaroen prezio unitarioa	10 puntu	20 puntu	10 puntu
30 puntu	10 puntu			

Formulen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideetan, 40 puntu dagozkie eskaintza ekonomikoari.

- Gehienez **30** punturekin baloratuko da beherantz eskaintzen den zenbatekoa, alegia, instalazioak mantendu eta kudeatzeko eta sarrerak kontrolatzeko zerbitzurako eta enpleguaren sustapenerako adierazitako oinarriaren aldean eskaintzen den beherapena. Lege linealaren arabera puntuazio-irizpidea erabiliko da; hala, gehieneko puntuazioa (30 puntu) emango zaio aurkeztutako proposamenen artean beherapenik handiena eskaintzen duenari (BEZa kontuan hartu gabe), eta 0 puntu emango zaio batere jaisten ez denari; gainerako eskaintzei modu proportzionalan esleituko zaizkie puntuak.

- Gehienez **10** punturekin baloratuko da kirol-jarduerei buruzko ikastaroen prezio unitario gisa adierazitako oinarriaren aldean eskaintzen den beherapena; lege linealaren arabera puntuazio-irizpidea erabiliko da eta, hala, gehieneko puntuazioa (10 puntu) emango zaio aurkeztutako proposamenen artean beherapenik handiena eskaintzen duenari (BEZa kontuan hartu gabe), eta 0 puntu emango zaio batere jaisten ez denari; gainerako eskaintzei modu proportzionalan esleituko zaizkie puntuak.

Enpresa lizitatuak gehienez **10** puntu lortu ahal izango dituzte “udalerrian erroldatutako langileak kontratatzeagatik”. Agirian azaltzen denez, kontratatutako lanaldiaren (lanordu kopuruaren) arabera, puntuazio handiena



esleituko zaio lanaldi (kontratutako lanorduen kopuru) handiena kontratatzen duenari, 0 emango zaio inor kontratatzeko konpromisorik hartzen ez duenari, eta puntuak modu proportzionalan esleituko zaizkie gainerako eskaintzei.

Formula baten bidez automatikoki ebaluatu ezin diren irizpideak: gehienez 30 puntu.

- Jardueren programa: gehienez **20** puntu. Balioetsiko dira, beste alderdi batzuen artean, kontratatutako zerbitzuko langileen eginkizunak, barne-kudeaketako antolatze-prozesuak, eta Udalarekin koordinatzeko prozesuak.
- Zerbitzuaren prestazioari eta segurtasunari dagokienez lizitzaileek eskaintzen dituzten hobekuntzak: gehienez **10** puntu. Balioetsiko dira Udalarri batere kosturik ez dakarkioten eta zerbitzua hobetzen duten prestazio guztiak (besteak beste, solasaldietarako ordu-eskaintza, Udalaren kirol elkarteetako begiraleentzako ikastaroak, zerbitzuari atxikitako langileen lanbide-profila...).

## **IV.- Kontratuaren azterketa lehiaren ikuspuntutik**

### **1.- Kontratuaren xedea**

**6.** Aztertu beharreko lehenengo gaia kontratuaren xedea bera da, administrazio kontratatzaileak definitu duen moduan.

Zerbitzu-prestazio gisa kalifikatuta dago kontratua, eta hauxe du helburua: “sortutako langile-beharrizanak asetzea zabaltze-ixte zerbitzurako, sarrerak kontrolatzeko, garbiketarako, igerilekuetako mantentze sanitariorako eta kirol-ikastaroak emateko.”

Definizio horretan kontraesana dago; izan ere, zerbitzu bat eman beharraren itxurapean, Udalak agerian jartzen du langileak nahi dituela baina langile horiek ez dituela berak kontratatuko. Hain zuzen ere, “balio anitzeko langileak kontratatu beharra” aipatzen da agirian.

Ildo beretik, kontratuan adierazten denez, kontratuaren helburuetarikoak dira hainbat zerbitzu ematea eta “udalerrian enplegua sustatzea”<sup>8</sup>.

Lehenengo irizpidearen definizioan nahaste bat nabari daiteke; izan ere, 30 puntuko eskaintza ekonomikoan sartu dira bai kirol instalazio batzuetako mantentze- eta kudeaketa-zerbitzua eta sarreraren kontrola eta bai enpleguaren sustapena. Oso helburu desberdinak dira, eta baliteke haietakoren bat enpresa lizitzaileen xede sozialaren parte ez izatea ere. Beraz, kontratuaren xedearekin zerikusirik ez duen zama bat ezarri nahi izan zaie enpresei.

---

<sup>8</sup> Gogoratu behar da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 4.1.a) artikulua lege horren aplikazio-eremutik kanpo uzten dituela “funtzionario publikoen zerbitzu-harremanak eta laneko legedian araututako kontratuak”.



Ezin da bistatik galdu kontratazio publikoko prozesuek helburutzat dutela enpresa pribatuak kontratatzea, zerbitzu batzuk egin diezazkieten Administrazioari berari nahiz, Administrazioaren izenean, herritarrei.

Kontratazio publikoko prozesuak, ezinbestez, gardentasunaren, eraginkortasunaren, tratu-berdintasunaren eta lehiaren printzipioen babesean daude.

Kontratazio eraginkorra egiten bada, zerbitzuak ahalik eta ondoen, kalitate- eta berrikuntza-estandarrik gorenak bermatuz eta preziorik onenetan egin ditzaketen enpresak kontratatzen badira, herritarrek ahalik eta zerbitzurik onena jasoko dute, eta enpleguaren sustapenerako politika egokiak abian jarri ahal izateko baliabide ekonomikoak aurreztuko dira.

7. Kontratua 26. kategorian (aisia-, kultura- eta kirol-zerbitzuak) sailkatu da CPV 92600000-7 nomenklaturaren barruan (kirol-zerbitzuak).

Kalifikazio hori bat dator agirian zehazten diren zerbitzuetariko batzuekin. Ez dator bat, ordea, kontratuan jasotako zerbitzuen arteko multzorik handiena ematen duenarekin, hots, 1. kategorian (“mantentze- eta konponketa-zerbitzuak”) sailkatutako zerbitzuekin.

Halako zerbitzu askotarikoak batera kontratatzeak enpresei mugatu egiten dizkie eskaintzak aurkezteko aukerak, eta, horregatik, eraginkortasuna eta kostuen murrizketa (beste helburu batzuetarako baliabideen gehikuntza) ekarriko lituzketen baldintzak hobetzeko aukerak galtzen dira.

Halaber, Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak hau adierazi du<sup>9</sup>:

“... Tratu-berdintasunaren printzipioa ez da agortzen hautapen- eta adjudikazio-irizpideen diseinuan eta eskaintzen balorazioan hura aplikatuta, aitzitik, kontratuaren xedearen taxuerara eta kontratua gauzatzeko formula juridikoaren hautaketara ere hedatzen da, halako moldez non taxuera edo hautaketa horrek ez baitio bidegabeko edo neurrigabeko baliorik emango balizko lizitatzaille bakar batek eduki lezakeen ezaugarri bati...”

Elkarrekin zerikusirik ez duten hainbat helburu betetzeko zerbitzuak kontratatzen direnean, enpresa gutxiagok parte har dezakete lizitazioan, eta ondorioz kalte egiten zaio guztien interesari, kontratazio publikoan lehia askeak berekin dakartzan onurak galarazten direlako.

<sup>9</sup> 2015eko otsailaren 11ko 18/2015 Ebazpena, Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoko titularraren ordezkioak emana, “Anoetako estadioa eraberritu eta handitzeko proiektua idatzi, obrak egin, eta gero estadioa ustiatzeko” kontratuaren agirien aurka jarritako kontratazio-arloko errekurtso berezia ebazten duena. Anoetako Kiroldegia SA udal-sozietate publikoak izapidetu zuen kontratu hori.



## 2.- Udalerrian erroldatutako langileak kontratatzea

8. Agirian gehienez 10 punturekin baloratzen da, adjudikazio-irizpideen barruan, “udalerrian erroldatutako langileak kontratatzea”.

Balorazio-irizpide hori, berez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 1. artikulua aldarrikatzen dituen lehia askearen eta tratu-berdintasunaren printzipioen murriztailea da. Manu horrek honako hau dio hitzez hitz:

“Lege honen xedea sektore publikoan egiten diren kontratuak arautzea da. Legeak, arauketa horren bidez, bermatu nahi du, batetik, kontratazioa printzipio hauen arabera gauzatuko dela: lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publizitatearen printzipioa, eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa; bestetik, aurrekontuaren egonkortasunaren eta gatuaren kontrolaren helburuari lotuta, ziurtatu nahi du obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeko diru-funtsak eraginkortasunez erabiliko direla, dauden premiak alde aurretik definituz, lehia askea babestuz, eta ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza hautatuz.”

Bestalde, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak hainbat aldiz azpimarratu du kontratazio publikoari buruzko zuzentarauen muin-muinean dagoela tratu-berdintasunaren printzipioaren errespetua, xedetzat baitute lehia eraginkorraren garapena sustatzea zeinek bere aplikazio-eremuaren barruko sektoreetan, eta kontratuak adjudikatzerakoan lehia hori bermatu behar duten irizpideen zerrenda baitakarte<sup>10</sup>. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziatik ondorioztatzen denez, halaber, tratu-berdintasunaren printzipioari jarraituz bereizkeriarik gabeko baldintzak ezarri behar dira edozein jardura ekonomiko egin ahal izateko, eta, gainera, agintari publikoek behar diren neurriak hartu behar dituzte jardura hori egin ahal izango dela bermatzeko<sup>11</sup>. Hala, bada, aipatutako jurisprudentziak dioenez, adjudikazio-irizpideek errespetatu egin behar dute bereizkeriarik ezaren printzipio hori, Kokatzeko eta zerbitzuak aske emateko eskubideari buruzko Tratatuaren xedapenetatik ondorioztatzen dena<sup>12</sup>.

Kontratazio publikoari eta lehiari buruzko gidaliburuan adierazitako moduan<sup>13</sup>:

<sup>10</sup> Ikus, horren haritik, Justizia Auzitegiaren 1993ko ekainaren 22ko Epaia, Batzordea/Danimarka, C-243/89 auzia, Bildumako L-3353 or., 33. atala.

<sup>11</sup> Ikus Justizia Auzitegiaren (Seigarren Sala) 2002ko abenduaren 12ko Epaia, Universale-Bau eta beste batzuk, 470/99 auzia, Bildumako I-11617 or., 93. atala.

<sup>12</sup> Ikus Justizia Auzitegiaren 2002ko irailaren 17ko Epaia, Concordia Bus Finland, C-513/99 auzia, 81. atala.

<sup>13</sup> MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA, *Kontratazio publikoari eta lehiari buruzko gida*, op. cit.



“Debekaturik dago jada kokatuta dauden edo sektorean aspalditik diharduten enpresei bidegabeki mesede egitea; esaterako, horrelako operadoreen aldeko bereizkeria eragin dezaketen parametroei gehiegizko haztapena esleitzea.”

Udalerrian erroldatutako pertsonen lanorduak kontratatzen dituzten enpresen balorazioan abantaila ezarrita, kontratua eskuratzeko aukera mugatzen zaie eskatzen diren zerbitzuak emateko behar adina langile dituzten enpresei, edo kontratatu behar diren zerbitzuak egiteko langileak beste udalerrri batean bilatzen dituztenei. Horri dagokionez, Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiak, antzeko kasu batean, non eskatzen baitzen kontratatzailearen udalerriko langile berriak kontratatzeko, honako hau adierazi zuen<sup>14</sup>:

“Ezin da lizitatzailer baten alde egin pertsona jakin batzuk kontratatuko dituela agindu duelako, haien auzotasuna, sexua, arraza edo beste inguruabarren bat dela eta; eta agiriak ezin zuen horrelakorik xedatu”.

Ildo bereko iritzia agertu du Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak ere: adierazi du “lurralde-sustraiak” balioesten dituzten adjudikazio-irizpideak bereizkeriazkotzat jo dituztela Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiak, Estatuko Administrazio Kontrataziorako Aholku Batzordeak eta Europako jurisprudentziak<sup>15</sup>.

Hala, bada, hizpide dugun kontratuko zerbitzu guztietan (elkarren desberdinak izanik) udalerrian erroldatutako pertsonak bezain eraginkor jardun dezakete erroldatuta ez daudenean. Horregatik, ondorio gisa esan behar da ez dagoela inolako loturarik eskatutako betekizunaren eta Udalak eman nahi duen zerbitzuaren artean.

Betekizunak eta kontratuaren xedeak elkarrekin zerikusirik ez dutenez, goian aipatutako balorazio-irizpideak balizko eskaintzaileen arteko bereizketa sortzen du, debekatuta dagoena Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 139. artikuluan, eta edozein udalek defendatu behar dituen lehiaren eta interes orokorraren aurkakoa dena<sup>16</sup>.

Herriko pertsonen artean enplegua sustatu beharra ezin da erabili kontratuak herriko enpresentzat gordetzeko estrategia gisa; horregatik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 1. artikuluan edukia kontuan

<sup>14</sup> Ikus Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2011ko uztailaren 21eko 755/2011 Epaia, Administrazioarekiko Auzien Sala, 2. atala, 4315/2011 errekurtsua.

<sup>15</sup> Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren 120/2013 Ebazpena, azaroaren 29koa.

<sup>16</sup> Ikus Aragoiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Kontrataziorako Aholku Batzordearen 16/2012 Txostena, irailaren 19koa. (3. oinarria); Estatuko Administrazio Kontrataziorako Aholku Batzordearen 3/09 Txostena, irailaren 25koa.





hartuta, ahaleginak egin beharko dira aukeratutako hautagaien kopurua ahalik eta handiena izan dadin.

### 3.- Adjudikazio-irizpideekin zerikusia duten beste kontu batzuk

9. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 150.2 II artikulua dioenez, esleipen-irizpideak zehazterakoan, agirietan ezarritako formulen aplikazio hutsaren bidez lortutako kopuru edo ehunekoaren bitartez balora daitezkeen kontratuaren ezaugarriak kontuan hartzen dituzten irizpideak lehenetsi behar dira. Ildo horretan EAeko Justizia Auzitegi Nagusiak hau adierazi du: “Administrazioak ezikusia dena egiten dio goian aipatutako manuari baldin eta manu horrek ezartzen duen lehentasuna alora uzten badu berariazko eta zentzuzko justifikaziorik gabe”<sup>17</sup>.

Bestalde, Lehiaren Batzorde Nazionalak adierazi du balorazio-irizpide guztien haztapan egokia lizitatuzaileen arteko tratu-berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren bermea dela<sup>18</sup>.

“Oro har, salbuespenak salbu, eskaintako prezioak funtsezko pisua eduki behar du eskaintza bakoitzaren balorazioan, lizitatuzaileen eraginkortasun maila ondoen erakutsi ohi duen irizpide objektiboa eta ekonomikoki kuantifikagarria delako” (...) “Eskaintzak baloratzeko erabilitako metodoak lehia egikartzeko tarte behar bezain zabala utzi behar du oinarritzeko elementu horietariko bakoitzean” (...) “Puntuazio-irizpideek balio-judizioak dakartzatenean, komeni da zehaztea zein elementu hartuko diren kontuan ebaluazio kualitatibo horretarako, elementuok deskribatzea azpi-irizpideetan, eta haietako bakoitzari emango zaion puntuazioa zehaztea”

10. Aztergai dugun kasuan, eskaintza ekonomikoak 40 puntuko pisua du; herriko langileak kontratatzearen irizpideak, zeina, ikusi dugunez, berez desegokia baita, 10 puntuko pisua du, eta gainerako balorazio-irizpideek batera, beste 40 puntukoa.

Balorazio-irizpideen garrantzia zehazteko modu hori eragozten ari da eskaintza ekonomikoa izan dadin zerbitzuak hautatzeko funtsezko parametroa, eta horrek eragin negatiboa du, kudeaketa eraginkorrari eta baliabide publikoen aprobetxamenduari begira. Puntu honetan azpimarratu egin behar da Udalak kontratatutako zerbitzuetako batzuk (adibidez, zerbitzuak emateko lanorduak, garbiketa edo mantentze-lanak) oso zerbitzu estandarizatuak direla, eta erraz-erraza dela Udalaren beharrianak zehaztu eta eskaintza ekonomikoei pisu handiagoa ematea interes orokorreko helburu handiagoak lortzeko.

<sup>17</sup> EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2015eko martxoaren 31ko 147/2015 Epaia, Administrazioarekiko Auzien Sala, 1. atala, 193/2014 errekurtsua.

<sup>18</sup> LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA, *Kontratazio publikoari eta lehiari buruzko gida*, op. cit.



**11.** Beste alde batetik, azpimarratzekoa da, halaber, kontratuak askotariko zerbitzuak biltzen dituen (mantentze-lanak eta kirol-jarduerak nahastuta), enpresek eskaintza egiteko dituzten beharizanak alferrik korapilatzen direla; benetako arriskua dago zenbait enpresak beren eskaintzak aurkezteari uko egiteko, eman beharreko zerbitzuen bikoiztasun horren aurrean.

Egoera horrek, berez, merkaturako sarreran hesi desegoki bat sortzen du.

**12.** Azkenik, erakunde hau bat dator Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren balorazioarekin, agirian jaso diren balorazio subjektiborako irizpideen zehaztasun eta kuantifikazio urriek botere adjudikatzailerari nahierara aukeratzeko tarte zabalegia eskaintzen diotela dioenean.

Horixe gertatzen da jarduera-programarekin eta hobekuntzekin:

Jarduera-programa gehienez 20 punturekin hazta daiteke. Eta adierazten da balioetsiko direla, "**beste alderdi batzuen artean**, kontratatutako zerbitzuko langileen eginkizunak, barne-kudeaketako antolatze-prozesuak, eta Udalarekin koordinatzeko prozesuak.

Hobekuntzen irizpidean, gehienez 10 puntuz baloratzen dira "Udalari batere kosturik ez dakarkioten eta zerbitzua hobetzen duten prestazio guztiak (besteak beste, solasaldietarako ordu-eskaintza, Udalaren kirol elkarteetako begiraleentzako ikastaroak, zerbitzuari atxikitako langileen lanbide-profila...)"

Zehaztasun falta horrek eta zerrendetan ez dauden beste elementu batzuk baloratu ahal izateko aukerak ez diote mugarik ezartzen organo adjudikatzailerak nahierara erabakitzeko ahalmenari, eta muga horiek beharrezkoak dira lizitatzailerak babesgabetasuna ekiditeko <sup>19</sup>.

## V.- Gomendioak

**LEHENENGOA.** Kontratuaren xedea ez da egokia, zerbitzuak egiteari eta udalerrian enplegua sustatzeari buruzko aipamena dakarrelako; azken xede hori txalogarria da, baina ezin da legez egokitu Udalak kontratatu nahi dituen zerbitzuen administrazio-kontratazioan. Kontratazio publiko eraginkorrak baliabideak jarri behar ditu legearen babespeko enplegu-sustapeneko politikak gauzatzeko.

---

<sup>19</sup> Gaztela Mantxako Auzitegi Nagusiaren 2000ko martxoaren 25eko 338/2000 Epaia, Administrazioarekiko Auzien Sala, 2. atala, 1934/9997 errekurtsua. Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren 18/2015 Ebazpena eta hartan aipatzen den Europako jurisprudentzia.



**BIGARRENA.** Udalerriko langileen lanorduak kontratatzen dituzten enpresei puntuak ematen dizkien adjudikazio-irizpidea bereizkeriazkoa da, eta ez du loturarik Udalak kontratatu nahi dituen zerbitzuekin. Horregatik irizpide hori kendu egin behar da

**HIRUGARRENA.** Kontratu bakar batean hainbeste motatako zerbitzuak bilduta, sarrerako hesi bat sor daiteke, hainbat enpresari eskaintzak aurkezteko aukera mugatuko diona; horrek murriztu egiten ditu lehiak kontratazio publikoaren eraginkortasunaren aldetik dakartzan onurak.

**LAUGARRENA.** Adjudikazio-irizpideen haztapena berriz aztertu behar da, eman beharreko zerbitzuen ezaugarriak kontuan izanik, eta balorazio subjektiborako irizpideak zehaztu egin behar dira, gardentasuna eta kontratuak eskuratzeko aukera-berdintasuna bermatzeko eta lizitatzailen babesgabetasuna ekiditeko.